

GERRA ZIBILA GARAIKO NAZIO ARTEKO EGOERA

- Frantziako Frente Popularraren zabaltze laburra:
 - 1937-VI Frantziako Senatuak ez dizkio botere osoak ematen Leon Blum sozialistari, ondorioz dimititzen du eta ordezkoa erradikalagoa da. Fronte Popularraren amaiera erakarriz.
 - Krisialdi ekonomikotik ateratzeko Estatuaren gastua goratzen dute eta langileen baldintzak ere hobetu, lan eskubide eta sindikalak zabalduz
 - Frantzia bi joeretan banatu: Hitlerri emariak onartzen dutenek eta kontra agertzen direnak (komunistak)
 - 1937ko Nazio arteko erakusketa Parisen. SESB eta Alemaniak euren boterea erakutsiz. Errepublikak bere aretoan Gernika margolana erakutsi.
- Italia eta Alemaniaren sistema totalitarioak:
 - 1937an Pio XI kritikatu nazismoaren eta SEBS komunismoaren zenbait atal
 - 1939an Pio XII onarpen handiagoa erakutsi Italia eta Alemaniaren ideologiarekin
 - Alemanian: judutarren eta ijitoan kontrako ekintzak areagotu. 1938an judutar batek erail Alemaniako diplomatiko bat. Aitzaki honekin “leiar hautsien gaua”, sinagogak erre, dendak hautsi eta aurrerantzean ghettoekin hasi eta arraza garbiketarekin (holokaustoa)
 - Italian: 1937an sortuko da Herri Kulturaren Ministerioa (propaganda eta kontrolerako). Eskoletan sortu “huomo novo” bere oinarriak hauexek direlarik: obediencia eta lana. 1938an Alemaniari kopiatuz “Arraza defentsarako” legedia sortu, judutarren kontra. 1939an Diputatuen ganbara desagertu, Fascio eta korporazioaren ganbara bihurtuz.
 - 1936ko joko olinpikoak propaganda giza. (Olinpia filma Lieni Reichstein). 1937an Mussolini eta Hitlerren estatuen arteko harremanak hasi, 1938an Hitler Italiara doa.
- Diktadura sistema zabaltzen doa:
 - 1936-39 Japonia, Italia, Alemania SDN kontra lurra okupatzen dituzte, gainera elkarrekiko harremanak dituztelarik. Alemaniak ez du onartzen Versailleseko mapa berria eta aleman hizkuntzarekin batu nahi ditu Europako erdiko herriak.
 - 1936-III Renania (I mundu gerra osteko eskualde desmilitarizatu) inbaditu
 - Japoniak Mantxuria inbaditu, Txinan Maoren komunistak eta Chang Kai Sheken nazionalisten gerra zibila zela eta. Gerora SEBS presio pean biak elkartu Japoniari aurre egiteko.
 - 1937-VII-26 Japoniak Txinako kostaldea inbaditu eta Yang-Tsé arroa ere.
- Alemaniak Sudeteak bereganatu:
 - 1938-III “Anschluss” Austria Alemaniaren barruan sartzea (Austriako naziek boterea eskuratu eta gero Hitlerri proposaturik)
 - Sudeteetan ere alemaniar anitz bizi zirelarik eskualdea ere eskatu Alemaniarentzat. Nazio arteko krisia sortuko da, Txekoslovakia bakardadean utziz. 1938-IX-29 Britainia Handiko Chamberlain, Frantziako Daladier Hitlerrekin sinatu Municheko akordioa. Onartzen da Sudeteen erdia edo bereganatzea. Hitzarmenean Txekoslovakia ez du parte hartzen. BH iraultza sortzearen beldurra argudiatzen du (SEBS sustatua) eta baita gerra hasi zitekeela.
 - 1939-III-15 Alemanek Pragan sartu. Lehendakariak onartu beharko du gaurko Txekoslovakia Alemaniari ematen, Bohemia eta Moravia.
 - 1939-IX-1 Polonia inbaditzen dute > II Gerra mundialaren hasiera
- SESB diktadura komunista:
 - Stalin alderdi komunistaren eta langileen izenean lehendakaritza. Diktadore bihurtu
 - 1938an Moskuko prozesuak eta PCUS barneko purgak edo garbiketak (troskistak edo Stalinen lehiakideak desagerraraziko dituzte). Izua eta kontzentrazio esparruak ireki, Gulak,
 - Adierazpen askatasunik ez da eta gainera Stalinen irudiari debozioa sustatu. 15 miloi pertsona inguru atxilotu zituzten eta lan faraonikoak burutu zituzten.
 - Bortz urteko planak militarizaziorat zuzentzen dira
 - 1939an Alemaniarekin elkarri ez erasotzeko ituna sinatuko dute.